

Karbono-aztarnak 12.384 tona CO<sub>2</sub>-ko marjina positiboa lortu du

## Kutxabanken CO<sub>2</sub> isuriak % 84,3 jaitسي dira 2018tik

- **Finantza-taldearen jabetzako basoek 13.656 tona karbono-dioxido xurgatzen dituzte eta aise konpentsatzen dituzte Erakundearen isuriak**
- **Erreferentzia gisa finkatu da ingurumenaren aldetik jasangarriak diren enpresen esparruan**

**2021eko otsailaren 14a.** 2020an, Kutxabankek nabarmen murriztu ditu bere jarduera korporatiboak sortzen dituen CO<sub>2</sub> isuriak, eta horrela erreferentzia gisa finkatu da ingurumenaren aldetik jasangarriak diren enpresen esparruan.

2018tik, Kutxabankek % **84,3 murriztu ditu bere karbono-isuriak**, 2018an **8.114 tona** sortzetik 2020an **1.272 tona** isurtzera igaro baita.

Murrizketa hori, neurri handi batean, Iberdrolarekin egindako kontratua 2020ko urtarrilaren 1ean indarrean sartzearen ondorio da; izan ere, 900 banku-sukurtsal baino gehiago eta Kutxabank Taldearen lantoki guztiak Nuñez de Balboa instalazio fotovoltaikotik datorren **elektrizitate berdez soilik** hornitzea ahalbidetzen du kontratu horrek.

Energia berdearen hornidura-kontratuak esan nahi du urtean **6 mila tona** karbono-dioxido baino gehiago sortzea saihestuko dela, horrela ekonomia deskarbonizatzeko estrategiari lagunduz. Kopuru hori **15 mila tonara** igotzen da, baldin eta Taldeko **sozietateen** eta **akziodun diren** banku-fundazioen jarduera kontuan hartzen bada.

Murrizketa horri gehitu behar zaizkio finantza-taldeak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan dituen **971 hektareako basoek** xurgatutako **13.656 tona CO<sub>2</sub>**, Kutxabanken isuriak aise konpentsatzen dituztenak.

Baso horiek administratzeak eta kudeatzeak esan nahi du, praktikan, Kutxabankek **12.384 tonako 'karbono-aztarna negatiboa'** lortu duela 2020an; izan ere, Kutxabanken baliabide propioek karbono dioxido gehiago xurgatzen dute Erakundeak atmosferara isurtzen duena baino, erregai fosilak (gas naturala eta gasolioa), elektrizitatea eta langileen garraioa kontuan izanda.

### **Jasangarritasunarekin konprometitutako kudeaketa**

Kutxabankek **ekoizpen jasangarria bermatzeko, klima-aldaketari aurre egiteko** edo **ingurumenarekiko begirunetsua den garapen ekonomikoa bultzatzeko** lagungarri diren alderdiak txertatzen ditu bere kudeaketan, betiere gobernu oneko jarreretatik abiatuta.

**Jarrera proaktiboa du ingurunearen babes,** kutsaduraren prebentzio eta ingurumen-degradazioan. Finantza-jarduerarako beharrezkoak diren energia- eta material-kontsumoak (papera edo plastikoa, adibidez) minimizatzeaz gain, sortzen dituen hondakinak arduraz kudeatzen ditu.

**Ingurumen-politika instituzional oso aktiboa du,** bai eta Ingurumen Jardunbide Egokien Gida ere, Kutxabanken lan egiten duten pertsona guztien ingurumen-jarduna hobetu eta sentsibilizatzeko helburuarekin. Gida horrek, besteak beste eraginkortasun energetikoaren edo hondakinen bereizketa eta kudeaketaren bidez, edo baliabide eta materialen erabilera minimizatuz, ingurumen-inpaktua minimizatzen duten neurriak gauzatzeari sustatzen du.

Finantza-ikuspegitik, Kutxabankek produktu jasagarrien katalogo zabala eskaintzen die bezeroei, **kalifikazio energetiko handiko etxebizitzak erosi eta aseguratzeko, ibilgailu elektrikoak eta hibridoak** erosteko edo **"etxetresna elektriko berdeen"** erosketa baldintza onuragarrietan finantzatzeko. Halaber, bere bezero diren enpresei ekonomia jasagarriago baterantz laguntzen die, eta energia berriztagarriak sortzeko proiektuak garatzen dituzten edo beren jarduera baso-guneak babestera bideratzen duten enpresa-ekimenak babesten ditu.

Gainera, **kudeaketapeko aktiboen zorroa** du 24.000 milioi euro baino gehiagokoa, sozialki arduratsuak diren inbertsio-irizpideekin administratuta daudelarik erabat. Horrek esan nahi du ziurtatzen duela bere inbertsioen hartzaile diren erakundeek giza eskubideak errespetatu, ingurumena zaindu, Gobernu Oneko Politikak eta zerga-arloko praktika edo jardunbideak bete eta sustatzen dituztela beren jarduera-eremuan.